



## ESKALADA JASANGARRIA GIPUZKOAN ESCALADA SOSTENIBLE EN GIPUZKOA

### ARRITZAGA, ERLOGOENA ETA KOPAKO HARRI ESKALADA GUNEEI BURUZKO JAKINARAZPENA.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeo Departamentua eta Gipuzkoako Mendizale Federazioa lanean dihardugu Gipuzkoako eskalada guneetan espezie mehatxatuen garapenean sor daitezkeen eragozpenak ekiditeko.

Irizpide nagusi bezala espezien babesa erabilera publikoaren gainetik ezartzen den arren, debekuan baino erregulazioan oinarritutako kudeaketa aurrera eraman nahi da bi erakundeen aldetik. Hala ere, kasu batzuetan, espezie mehatxatuen baten gainean eskaladak izan dezakeen eragina handia izan daitekeela baloratzen bada, debeku puntualak ezarri litezke.

Helburua, Gipuzkoako eskalada gune guztien erregulazio plana egitea da. Erregulazio horretan eskalada guneak hiru mailatan banatuko lirateke:

1. **Gune gorriak** Urte guztian eskalada debekatua duten guneak.
2. **Gune horiak** Urteko sasoiaren arabera edo une jakin batzuetan eskalada baimendua edo debekatua dutenak.
3. **Gune berdeak** Urte guztian zehar eskalatu daitezkeen guneak.

#### Arritzaga-Artubi Gunea gorrian.

2021 urtearen amaieran, Buruntzunzin elkarteak Aralar-eko Arritzaga-Artubi inguruan bi sektore berri ekipatzeko baimena eskatu zuen: Artola arratea eta Astarteko harkaitzak. Ugatzaren presentzia egiaztatu ondoren, bi sektoreak gune gorri bezela sailkatu direla eta eskalada debekatua dagoela jakinarazi digute Foru Aldundiko teknikariek.

#### Erlogoena Gunea horian.

Foru Aldundiko teknikariek adierazi digutenez Azpeitiako Elosiaga auzoaren inguruan,

### COMUNICACIÓN SOBRE LAS ZONAS DE ESCALADA DE ARRITZAGA, ERLOGOENA Y KOPAKO HARRI.

*El Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Federación Guipuzcoana de Montaña estamos trabajando conjuntamente para evitar las molestias que se puedan ocasionar al desarrollo de las especies amenazadas en los lugares de escalada.*

*A pesar de que, como criterio fundamental, se prima la protección de las especies sobre el uso público, ambas instituciones quieren llevar a cabo una gestión basada en la regulación, más que en la prohibición. Sin embargo, si se valora que, en algunos casos, la escalada puede afectar a una especie amenazada, se pueden establecer prohibiciones puntuales.*

*El objetivo es que, se regulen todas las zonas de escalada de Gipuzkoa. Dentro de dicha regulación las zonas de escalada se agruparían en tres niveles:*

1. **Zonas rojas** Zonas donde la escalada está prohibida todo el año.
2. **Zonas amarillas** Zonas donde la escalada está autorizada o prohibida según la estación del año o momentos puntuales.
3. **Zonas verdes** Zonas donde se puede escalar todo el año.

#### Arritzaga-Artubi en Zona roja.

*A finales de 2021, el club Buruntzunzin solicitó la autorización para el equipamiento de dos nuevos sectores en la zona de Arritzaga-Artubi de Aralar: Artola arratea y Astarteko harkaitzak. Una vez comprobada la presencia del quebrantahuesos en dichos roquedos, los técnicos de la Diputación Foral nos informan de que se ha clasificado como zona roja y la escalada está prohibida en ambos sectores.*

#### Erlogoena en Zona amarilla.

*Según nos han informado técnicos de la Diputación Foral, en las inmediaciones del barrio de Elosiaga, en Azpeitia, en las faldas*

Erlogoena tontortxoaren magalean, eskalada bide berri bat topatu dute. Kasualitatez aurten saizuri bikote batek kabia jarri du bertan, eta ondorioz gune horretan eskalada erregulatu behar izan dute. Gune horia bihurtu da eta Martxoaren 1etik abuztuaren 31ra bitartean bertan eskalatzea debekatuta egongo da. Mendi Federaziotik bide horren ekipatzaileekin hitzegin nahiko genuke, gunearen benetazko izena eta bertan dauden bideen datuak ezagutzeko asmotan. Aldi berean, erregulazio horren azalpen zehatzagoak emango genizkieke. Mesedez, telefonoz edo posta elektronikoaren bidez gurekin harremanetan jartzea eskatzen dizuegu.

### **Kopako Harri Gunea horian.**

Nahiz eta Nafarroako eskalada gune bat izan, gipuzkoar asko dira Kopako Harri-ra eskalatzera joaten direnak. Aurten, aparkaleku ondoan dagoen eta eskalatzeko debekua adierazten duen kartelak zalantza asko sortarazi dituen bezala, Nafarroako Gobernuak ingurumen sailarekin harremanetan jarri gara eta argi utzi digute erregulazio horrek gune osoari eragiten diola, ez Tartalo sektoreari bakarrik. Debeku hori garai baterako da eta altxatzen dutenean jakinaraziko digute, seguruenik uda erdialderako.

Gipuzkoako eskalatzaile guztiei erabakitakoa errespetatzeko eta bi zonalde horietan ez eskalatzeko. Denon artean Gipuzkoan bizi diren babestutako espezieen eta eskalatzaileen arteko elkarbizitza lortuko dugulakoan, lanean jarraituko dugu Foru Aldunditik eta Gipuzkoako Mendizale Federaziotik.

**Zaindu zu eta ingurunea.  
PRAKTIKATU ESKALADA  
JASANGARRIA!**

**2022ko ekainaren 2a**

*del monte Erlogoena, se han encontrado con una nueva vía de escalada. Casualmente, este año una pareja de alimoches ha instalado su nido en esa zona, lo que ha obligado a regular la escalada. Se ha convertido en zona amarilla y entre el 1 de Marzo y el 31 de agosto estará prohibido escalar allí. Desde la Federación de Montaña nos gustaría hablar con los equipadores de esta vía para conocer el nombre real de la pared y los datos de las vías existentes en la misma. Al mismo tiempo, les daríamos explicaciones más detalladas de esta regulación. Se ruega contactar con nosotros por teléfono o correo electrónico.*

### **Kopako Harri en Zona amarilla.**

*A pesar de ser una zona de escalada navarra, son muchos los guipuzcoanos que acuden a escalar a Kopako Harri. Este año, el cartel junto al aparcamiento que indica la prohibición de escalar en los roquedos ha suscitado muchas dudas, por lo que nos hemos puesto en contacto con el departamento de medio ambiente del Gobierno de Navarra, quienes nos han aclarado que esta regulación afecta a toda la zona, no sólo al sector Tartalo. Esta prohibición es temporal y nos comunicarán cuando la levanten, probablemente para mediados de verano.*

*Pedimos a todos los escaladores de Gipuzkoa que respeten lo acordado y no escalen en dichas zonas. Tenemos el convencimiento que, entre todos, lograremos la convivencia entre las especies protegidas y los escaladores, y la Diputación y la Federación Guipuzcoana de Montaña seguiremos trabajando en ello.*

**Protégete tú y tu entorno.  
¡PRACTICA LA ESKALADA  
SOSTENIBLE!**

**2 de junio de 2022**